

SANTA TERESAREN GAZTE DENBORA

Santa Teresaren jaiotzako bosgarren mendeurrena gainean dogunez, haren bizitzako gorabehera batzuk *Karmel* aldizkarian aipatzea da nire asmoa. Aurreko zenbakian, bere umezaroan gurasoengandik eta neba-arrebengandik hartutako eragin ederra eta baikorra gogoratu nebazan.

Ia hamalau urte egiteko zala, ama hiltzen jako. Hortxe amaitzen da Teresaren umezaroa. Ondorengo lerroetan, haren hamalau-hogei urte bitarteko jazoera garrantzitsuenak izango ditut gogoan.

Irakurtzeko zaletasun bizia

Umetatik izan eban Teresak irakurtzeko zaletasun bizia. Bere gurasoengandik hartu eban liburuak irakurtzeko joera. Badakigu umetan ere, zelan onerako eraginkortasun sakona izan eban “Flos Sanctorum” liburuak. Baina hamalau-hamasei urtekin zaldun liburuak irakurtzeko egarri itzela sortuko jako. Ezingo dau igaro egun bat ere liburu barik.

Hauxe idatziko dau bere “Bizitza” liburuan: “Ez zela txarra iruditzen zitzaidan, eguneko eta gaueko orduak eta orduak zentzugabeko zeregin hartan ematea, neure aitaren ezkutuan bazen ere. Hain nengoen murgildua horretan, non ez bainuen onik izaten liburu berria eskuetan izan gabe” (2, 2)

Badaezpadako lehengusu-lehengusinak

Adin honetan bere berezko edertasuna ederragotzen lar arduratuko da Teresa gaztea. Apain jantzi eta itxura dotorez agertzea itzel atsegin jako. “Apain jantzen hasi nintzen – dino Teresak – eta itxura onez agertzean atsegin eman nahi izaten nuen, kontu handia izanez esku eta ileekin eta usain gozoeekin eta horretarako izan ahal nituen banitate guztiekin, eta asko ziren, oso txukuna bainintzen. Ez nuen asmo txarrik, nigatik inork Jainkoa iraintzerik ez bainuen nahi. Urte askotan iraun zidan gehiegizko garbitasunaren ardura biziak, baita ez zirela inola ere bekatu niri iruditzen zitzaizkidan gauzak ere” (2, 2).

Atsegingarria da Teresa. Eta laster irabazten ditu inguruko bihotzak. Berea zabal-zabalik dauka hartu-emonak izateko. Baditu lehengusu-lehengusinak bera baino pixka bat zaharragoak. Eurokin alkartuta ibiltzea gustuko dau. “Elkarrekin ibiltzen ginen beti. Maite-maite ninduten, eta gogoko zituzten gauza guztiz hitz egiten nien eta batere onak ez ziren umekeriak; eta txarrena izan zen, arima jartzea bere gaitz guztiaren susterra izan zenera” (2, 2).

Baeukan Teresak talde gazte honetan lehengusina bihurri bat ere. Nahiko kalte egingo eutsona bera. Nahiz eta beragaz hartu-emon estuak izan, ez da jausiko beragaz pekatu astunik egiteraino. “Berarekin ziren nire solasaldi eta hizketak, nik nahi nituen entretenigarrietako guztietan laguntzen baitzidan, eta are gehiago: neu ere jartzen nintzen haietan eta haietako solasaldi eta huskerien berri ematen nuen. Ez derizat Jainkoa bekatu astunez utzi nuenik, ezta Jainkoaren beldurra galdu nuenik ere, ohorearena handiagoa bazen ere” (2, 3). Beste hau ere autortuko dau Teresak: “Gauza lizunak berez-berez gorrotatzen nituen” (2, 6).

Esperientzia latz honetatik bizirik igaro ondoren, aholku honeek dakar gurasoentzat: “Nik aholkurik eman behar banu, esango nieke gurasoei, adin honetan bere seme-alabek harremanak dituzten pertsonekin kontu handia izan dezatela, gaitz

handia dagoelako hemen, berez lehenago jotzen baitugu txarrena hoberenera baino” (2, 3) Hurrengo aholkuak ere ez dira txantxetan hartzekoak: “Batuetan izuturik uzten nau lagun txar batek egiten duen kalteak, eta ni neu hortik igaro ez banintz, ezingo nuke sinetsi. Gaztetan handiagoa izan behar du egiten duen kalteak. Gurasoek nigan eskarmentua har dezatela nahi nuke, horretan kontu handia izateko. Eta harreman honek hainbestearaino aldatu ninduen, non, neure izaeraz bertutetsua nintzena, ia batere bertuterik gabe utzi baininduen, eta uste dut hark eta haren antzeko entretenigarrietan aritzen zen beste batek bere izaera grabatzen zutela nigan” (2, 4).

Santa Maria de Gracia monasterioan

Teresaren aita ere konturatzen da bere alaba kutuna ez doala bide onetik. Baita bere ahizta zaharrena ere aitagaz batera dator. Aita eta ahizta nagusia ez dagoz pozik Teresak lehengusina donge horregaz dauan adiskistasunagaz. Eta agustindar mojen Santa Maria de Gracia monasteriora daroe Teresa, bertan heziketa ona hartu egian. Hamasei urte ditu Teresak eta han egongo da barne-ikasle bezala urte bat eta erdi. Lehenengo egunak txarto igaroko ditu. Baina laster berreskuratuko dau betiko umore ona ere. “Lehenengo zortzi egunetan asko sentitu nuen; nire huskeriaren berri jakin zelako susmoa izan nuelako gehiago, han egoteagatik baino. Izan ere, ordurako nekaturik nengoen eta Jainkoaren beldur handia nuen Hura iraintzen nuenean, eta labur-labur aitortzen saiatzen nintzen. Urduri nengoen, baina zortzi egunean –eta uste dut baita gutxiagoan ere– neure aitaren etxean baino askoz ere pozago nengoen. Nirekin guztiak zeuden pozik, Jaunak horretarako grazia ematen baitzidan, nonahi nengoela ere poza emateko, eta horrela oso maitatua nintzen” (2, 8).

Nahiz eta adin horretan, moja izatearen guztiz kontra egon, atsegin jausten jakozan bertako mojak. Dino: “Oso onak ziren

etxe hartakoak, onestasun, erlijio eta moduzkotasun handikoak” (2,8). Bertako moja batekin hartu-emon sakonak izango ditu. Honen izena Maria Briceño. Berau zan neska gazteen arduraduna ere. Beronen eragin ederra honela kontatuko dau urte mordo bat beranduago: “Moja honen solasaldi on eta santuetz gozaten hasi nintzelarik, atsegin hartzen nuen hari Jainkoaz hain ongi hitz egiten entzutean, oso zentzudun eta santua baitzen. Nire ustez, beti entzun izan nion atseginez. Bera nola moja izatera etorri zen kontatzen hasi zitzaidan, ebanjelioak dioen hau irakurritz besterik gabe: ‘Gehiago dira deituak aukeratuak baino’. Jaunak Beragatik guztia uzten zutenei ematen zien saria gogorazten zidan. Lagun on honekin ibiltzeak lagun txarrak eragin zituen ohiturak baztertzea ekarri zuen eta nire Barruan berriro betiko gauzen gogoa ezartzea eta moja izatearen aurka nuen sentimendu bizia pixka bat leuntzea, oso bizia bainuen. Eta norbait, errezatzen zuen bitartean malkotan bustia ikusten banuen, edota beste bertute batzuk zituena, haren inbidia izaten nuen; izan ere, horretan hain zen gogorra nire bihotza, non Nekaldi osoa irakurriko banu ere, ez bainuen malko bat ere isuriko. Honek penaz jartzen ninduen” (3,. 1).

Esker onekoa agertzen da monasterio horretan izandako heziketaz. Bertako esperientziak lagunduko deutso moja izateko aurka eukazan konplexuak eta aurreiritziak pixka bat gainditzen: “Urte eta erdi egon nintzen monasterio honetan hobekuntza handiaz. Ahozko otoitz ugari egiten hasi nintzen eta guztiek Jainkoari nire alde eska ziezaioten ahalegintzen, Hura zerbitzatuko nuen biziera eman ziezadan. Baina oraindik ez nuen nahi hori moja-biziera izaterik, Jainkoak ez zezala nahi izan biziera hori niri ematerik, ezkontzeak ere beldur ematen zidan arren. Hemen egon nintzen denbora honen buruan, moja izateko gogo handiagoa nuen, baina ez etxe hartan, geroago haiengan aditu nituen bertuterik handieneko gauzak zirela eta, gehiegizkoa iruditzen baitzitzaidan; eta baziren gazteenetako batzuk, horretan laguntzen zidatenak, zeren guztiak iritzi berekoak izan balira, probetxu handia izango bainukeen” (3, 2).

Moja karmeldar izatera

Hamazortzi urte inguru ditula, Teresa gaixotuak monasteriotik urten beharra dauka. Aitaren ondoan lortuko dau osatzea eta ondoren ahizta nagusiaren etxera joango da bizitzera. “Sendatu nintzeneko, neure ahizparen –auzo batean bizi zenaren– etxera eraman ninduten hura ikustera, maite-maite baininduen eta, haren borondatez, ez nintzatekeen ni irtengo haren ondotik; eta haren senarrak ere oso maite ninduen, guztiz atsegin agertzen zen behintzat nirekin, hauxe ere Jaunari zor diot, alde guztietan izan baitut maitasuna beti, eta guztia ordaintzen nion neu naizen bezala” (3, 3).

Bi urte igaroko ditu etxean edo bere ahizta nagusiaren ondoan. Bitartean bere etorkizuna aztertzen ere nahiko buruhauste izango ditu. Batzuetan moja izateko sentimenduak sortzen jakoz bihotz barruan. Beste batzuetan ezkontzeko gogo bizia. Burruka gogor baten sartuta daukagu Teresa gaztea. Bere aita-ren anaia batek, alarguna bera, emongo deusoz erromantzezko liburu onak irakurtzeko. Holantxe, besteak beste, San Jeronimoren kartak irakurriko ditu. Ondo jatorko barneko arazoak pixka bat argitzeko. “San Jeronimoren Gutunak irakurtzen nituen; haiek hainbesteraino berotu zidaten gogoa, non neure aitari esatea erabaki bainuen; hori ia abitua hartzea bezala zen, izan ere, neure ohorearen hain estimu handia nuenez, ez nukkeen inola ere atzera egingo behin esanez gero” (3,7).

Eta azkenean, zirt edo zart egiteko ordua zala eta moja izatea erabakiko dau. Honela kontatzen deusku bere erabakia: “Borroka honetan neure buruari indar eginez arrazoi honekin: moja izateko nekeak eta nahigabeak ezin zitezkeela purgatoriokoak baino handiagoak izan, eta nik ongi merezia nuela infernua; ez zela asko bizi nintzen bitartean purgatorioan bezala egotea, eta gero zuzen-zuzen zerura joango nintzela, hauxe baitzen nire desira. Eta biziera hartzeko mugimendu honetan, maitasunak baino zerbitzari-beldurrak gehiago eragiten zida-

lakoan nago. Deabruak jartzen zidan buruan, bizitza guri-guria neramanez gero, erlijioke nekeak ezingo nituela jasan. Honen aurka Kristok igaro zituen nekeekin babesten nuen neure burua, ez baitzen horrenbestekoa nik Beragandik halako batzuk eramatea; Berak lagunduko zidala eramaten –pentsatuko nuen–, baina xehetasun onekin ez naiz gogoratzen. Tentaldi aski izan nuen egun hauetan” (3, 6)

Moja izateko erabakia hartu ondoren, bere aitarengandik sortuko jakoz eragozpen gogorrak. Baina Teresa ez da tximeleta bat lez errez aldatzen dan emakumea. Behin erabaki sendo bat hartzen dauanean, aurrera!, azkeneraino erabakia betetzen ahaleginduko da. Kasu honetan ere bardin izango da. ”Neure aitari esatea erabaki nuen; hori ia habitua hartzea bezala zen, izan ere, neure ohorearen hain estimu handia nuen, ez nukeen inola ere atzera egingo behin esanez gero. Hain maite ninduen, non ezin bainuen lortu hura horretara jartzea, eta ez ziren aski izan nik hari hitz egiteko eskatuta joan zitzaizkion pertsonen erreguak ere. Gehienez lortu zena, haren egunen ondoren nahi nuena egingo nuela” (3,).

Nahiz eta bihotz min ikaragarria jasan, goiz-goizetik hanka egiten dau etxetik eta Avilako Gizakundeko komentuan sartuko da karmeldar lekaike izateko. “Oroitzen naiz, nire iritzian eta egi-egiaz, neure aitaren etxetik irten nintzanean baino sentimendu biziagorik ez dela izango hiltzen naizenean. Izan ere, hezur bakoitza bere aldetik bereizten zitzaidala zirudien, eta aitaren eta ahaideen maitasuna ken dezakeen Jainkoaren maitasunik ez zenez gero, guztia zen neure buruari hain indar handia eginez, non Jaunak lagundu ez balit, nire gogoetak ez baitziren nahiko izango aurrera egiteko. Hemen adorea eman zidan neure buruaren aurka, eta horrela gauzatu nuen asmoa” (4. 1).

1535.eko azaroaren 2an, hogeitau urte besterik ez dituala, sartuko da Teresa komentuan. Data gomutagarria Teresaren bizitzan!

A. Olea